

ARRAKASTA BATEN

NONDIK NORAKOAK: KORRIKA 8

Kaleak jendez gainezka, euskalzaletasuna pil-pilean eta arrakastak eragindako irrifarre goxoak ezpainetan... Ez da ez erraz galduko lezoarren gogoetatik Martxoak 27 hartako oroitzapena!

Korrika batzordea, ilusio handiz lanean aritu den lezoar talde euskaltzalea, elkarte eta pertsona partikularrez osatu zen Otsailaren 5ean eta KORRIKA arrakastatsua gerta zedin, behar ziren egiteko guztiak banatu zituen; propaganda, egitaraua, korrika lagun...

Lezoarren parte hartzea paregabea izan da momentu oro, bai diru-laguntza eskeintzeko orduan, bai egitaraua aurrera ateratzeko orduan eta noski korri egiteko orduan. Guztion ekarpenak herriko arrakasta ekarri du, herrikoak eskualdekoa eta eskualdekoa Euskal Herrikoa. Lezon ikusitakoak Bilboko ongi etorri jendetsua garbiki iragartzen zuen. Ongi burututako lanak bitarteko pausu guztiak ongi bete izana adierazten du.



KORRIKA 8 Bilbon.

Oraingoan garbi ikusi da denok maite dugula gure herria, baina euskaraz, eta DENOK hori ez dela gure irudimenak sortutako laino arteko edo beste lurralde bateko izaki edo gizaki abstraktu hori, DENOK; zu zara, ni naiz, egunero ikusten dugun bizilaguna da.

Oztopo eta kontrako-nahi guztien gaintik, Lezo euskaltzale, korrikazale agertu da. Hitz batean; Lezok egin du bere apustua: Lezo euskaldun!!!

MILA ESKER LEZO!!!
GORA KORRIKA!!!
GORA LEZO!!!

LEZOKO KORRIKA BATZORDEA